

GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOKO
XEDAPEN OROKORRAK

1

DISPOSICIONES GENERALES DEL
TERRITORIO HISTÓRICO DE GIPUZKOA

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

OGASUN ETA FINANTZA DEPARTAMENTUA

649/2019 Foru Agindua, abenduaren 20koa, abenduaren 21eko 591/2016 Foru Aginduaren bidez onetsitako 196 eredu aldutzen duena.

Abenduaren 21eko 591/2016 Foru Aginduak 196 eredu onetsi zuen, hain zuzen ere, «Pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga, sozietateen gaineko zerga, eta establezimendu iraunkorra duten ez-egoiliarren errentaren gaineko zerga. Mota guztietako finantza erakundeen kontuetatik eratorritako kontraprestazioagatik lortutako errenten eta kapital higigarriaren etekinen gainean (aktibo finantzarioen gaineko eragiketetan oinarritutakoak barne) egindako atxikipenak eta konturako sarrerak eta mota guztietako finantza erakundeetan irekitako kontuetan baimendutako pertsonak eta saldoak. Urteko laburpena» izenekoak, baita haren aurkezpen moduak ezarri ere. Orobat, agindu horren bitartez 193 eredu aldatu zen, «Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren kapital higigarriaren hainbat etekinen gainean eta sozietateen gaineko zergan eta establezimendu iraunkorra duten ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren errenta jakin batzuen gainean egindako atxikipenen eta konturako sarreraren urteko laburpena» izenekoak. Azken urteotan, agindu horrek arautu izan du nola eman behar den 196 eredu jasotzen den informazioa, kasu guztietan edozein motatako finantza erakundeetan irekitako kontuetatik ondorioztatzen diren kontraprestazioen gaineko atxikipenei eta konturako sarrerei buruzkoa.

Foru Agindu honen bitartez pare bat aldaketa sartu nahi dira eredu horretan bete behar diren datuetan, zehazki, jarraian azaltzen diren hauek.

Lehenengo aldaketak komunikazioetarako helbideari buruzko informazioari eragiten dio, eta atzerriko helbide bat adierazteko aukera ahalbidetzea du helburu. Horretarako, «Probinzia kodeak» eremuan beste kode bat gehitzen da, helbidea atzerrian badago, kasu hori identifikatzeko.

Bigarren aldaketak eremu berri bat gehitzen du ustez abandonatuta dauden kontuak identifikatzea ahalbidetzeko. Zehazki, ereduaren beste eremu bat sartzen da, arlo sektorialean indarrean dagoen araudiarekin bat, aitortuen identifikazioarekin izandako arazoengatik hogeitau urteko epean kudeatu ezin izan diren kontuak identifikatu daitezten.

Hortaz, foru agindu honek bi aldaketa horiek sartu nahi ditu 196 ereduaren, eta horretarako, ezinbestekoa da haren diseinu fisikoa eta logikoak aldatzea.

Horrenbestez, hau

XEDATZEN DUT

Artikulu bakarra. 196 eredu aldatzeko.

591/2016 Foru Aginduaren I. eranskinetako diseinu fisiko eta logikoetan (591/2016 Foru Agindua, abenduaren 21ekoa, «Pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga, sozietateen gaineko zerga eta establezimendu iraunkorra duten ez-egoiliarren errentaren gaineko zerga. Mota guztietako finantza erakundeen kontuetatik eratorritako kontraprestazioagatik lortutako errenten

DIPUTACIÓN FORAL DE GIPUZKOA

DEPARTAMENTO DE HACIENDA Y FINANZAS

Orden Foral 649/2019, de 20 de diciembre, por la que se modifica el modelo 196 aprobado por la Orden Foral 591/2016, de 21 de diciembre.

La Orden Foral 591/2016, de 21 de diciembre, por la que se aprueba el modelo 196, «Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas, Impuesto sobre Sociedades e Impuesto sobre la Renta de no Residentes (establecimientos permanentes). Retenciones e ingresos a cuenta sobre rentas y rendimientos del capital mobiliario obtenidos por la contraprestación derivada de cuentas en toda clase de instituciones financieras, incluyendo las basadas en operaciones sobre activos financieros, personas autorizadas y saldos en cuentas de toda clase de instituciones financieras. Resumen anual», y sus formas de presentación, y se modifica el modelo 193 «Resumen anual de retenciones e ingresos a cuenta sobre determinados rendimientos del capital mobiliario del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas y determinadas rentas del Impuesto sobre Sociedades y del Impuesto sobre la Renta de no Residentes (establecimientos permanentes)», ha regulado durante los últimos años el suministro de información que se recogía en el modelo 196, correspondiente al suministro anual de información relativa a retenciones e ingresos a cuenta de contraprestaciones derivadas de cuentas en toda clase de instituciones financieras.

La presente Orden Foral tiene por objeto incluir un par de modificaciones en los datos a cumplimentar en dicho modelo, modificaciones que se exponen a continuación.

La primera modificación afecta a la información relativa a la dirección a efectos de comunicaciones, y tiene por objeto permitir la posibilidad de indicar una dirección en el exterior. Para ello se añade un nuevo código en el campo «Códigos de provincia» para identificar los casos de domicilio en el extranjero.

Con la segunda modificación se añade un campo adicional identificador de las cuentas en presunción de abandono, con el objeto de incorporar al modelo un campo adicional que permita identificar aquellas cuentas respecto de las que que no se haya practicado gestión alguna en el plazo de veinte años, con problemas en la identificación de los declarados, conforme a la normativa vigente en su correspondiente ámbito sectorial.

Por tanto, la presente orden foral tiene por objeto incorporar ambas modificaciones en el modelo 196, lo que exige modificar sus diseños físicos y lógicos.

En su virtud,

DISPONGO

Artículo único. Modificación del modelo 196.

Se introducen las siguientes modificaciones en los diseños físicos y lógicos del modelo 196, contenidos en el anexo I de la Orden Foral 591/2016, de 21 de diciembre, por la que se aprueba el modelo 196, «Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas, Impuesto sobre Sociedades e Impuesto sobre la Renta de no Residentes (establecimientos permanentes). Re-

eta kapital higigarriaren etekinen gainean (aktibo finantzarioen gaineko eragiketetan oinarritutakoak barne) egindako atxikipenak eta konturako sarrerak eta mota guztietako finantza erakundeetan irekitako kontuetan baimendutako pertsonak eta saldoak. Urteko laburpena» izeneko 196 eredu eta haren aurkezpen moduak onesten dituena, eta «Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren kapital higigarriaren hainbat etekinen gainean eta sozietateen gaineko zergan eta establezimendu iraunkorra duten ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren errenta jakin batzuen gainean egindako atxikipenen eta konturako sarreraren urteko laburpena» izeneko 193 eredu aldatzen duena), aldaketa hauek sartzen dira:

Bat. Aitortuaren erregistroko -2. motako erregistroko-472-473 posizioetan dagoen «Probintzia kodea» azpierrezua, «Komunikazioetarako helbidea» eremuko azpibanaketa dena, honela geratzen da idatzita:

«472-473. Probintzia kodea.

Probintziaren kodea jarri behar da.

Probintziari edo, hala badagokio, hiri autonomoari dagoz-kion bi digitu numerikoak jarri behar dira, zerrenda honen araber:

ARABA	01	LEON	24
ALBACETE	02	LLEIDA	25
ALACANT	03	LUGO	27
ALMERIA	04	MADRIL	28
ASTURIAS	33	MALAGA	29
AVILA	05	MELILLA	52
BADAJOS	06	MURTZIA	30
BARTZELONA	08	NAFARROA	31
BURGOS	09	OURENSE	32
CACERES	10	PALENTZIA	34
CADIZ	11	PALMAS, LAS	35
KANTABRIA	39	PONTEVEDRA	36
CASTELLO	12	ERRIOXA	26
CEUTA	51	SALAMANCA	37
CIUDAD REAL	13	S.C.TENERIFE	38
KORDOBA	14	SEGOVIA	40
CORUÑA, A	15	SEVILLA	41
CUENCA	16	SORIA	42
GIRONA	17	TARRAGONA	43
GRANADA	18	TERUEL	44
GUADALAJARA	19	TOLEDO	45
GIPUZKOA	20	VALENTZIA	46
HUELVA	21	VALLADOLID	47
HUESCA	22	BIZKAIA	48
BALEARRAK	07	ZAMORA	49
JAEN	23	ZARAGOZA	50

Helbidea atzerrian badago 99 gakoa jarriko da.»

Bi. Beste eremu bat gehitzen da aitortuaren erregistroko -2. motako erregistroko- 479 posizioan, «Ustez abandonatuta dauden kontuak» izenekoak, eduki hau duena:

«—Posizioak: 479.

Izaera: Alfabetikoa.

Eremuen azalpena: ustez abandonatuta dauden kontuak.

Eremu honetan «X» bat jarriko da, azaroaren 3ko 33/2003 Legean eta hura garatzeko araudian xedatutakoaren arabera, aitortuen identifikazioarekin arazoak egoteagatik ustez abandonatuta dauden kontuak identifikatzeko.»

Hiru. Beste eremu bat gehitzen da aitortuaren erregistroko -2. motako erregistroko- 500 posizioan, «Ustez abandonatuta dauden kontuak» izenekoak, eduki hau duena:

«—Posizioak: 500.

Izaera: Alfabetikoa.

Eremuen azalpena: ustez abandonatuta dauden kontuak.

tenciones e ingresos a cuenta sobre rentas y rendimientos del capital mobiliario obtenidos por la contraprestación derivada de cuentas en toda clase de instituciones financieras, incluyendo las basadas en operaciones sobre activos financieros, personas autorizadas y saldos en cuentas de toda clase de instituciones financieras. Resumen anual», y sus formas de presentación, y se modifica el modelo 193 «Resumen anual de retenciones e ingresos a cuenta sobre determinados rendimientos del capital mobiliario del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas y determinadas rentas del Impuesto sobre Sociedades y del Impuesto sobre la Renta de no Residentes (establecimientos permanentes)»:

Uno. El subcampo «Código de provincia», que ocupa las posiciones 472-473 del registro de tipo 2, registro de declarado, y es subdivisión del campo «Dirección a efectos de comunicaciones», queda redactado en los siguientes términos:

«472-473. Código provincia.

Se consignará el código de la provincia.

Se consignarán los dos dígitos numéricos que correspondan a la provincia o, en su caso, ciudad autónoma, según la siguiente relación:

ÁLAVA	01	LEÓN	24
ALBACETE	02	LLEIDA	25
ALICANTE	03	LUGO	27
ALMERÍA	04	MADRID	28
ASTURIAS	33	MÁLAGA	29
ÁVILA	05	MELILLA	52
BADAJOS	06	MURCIA	30
BARCELONA	08	NAVARRA	31
BURGOS	09	OURENSE	32
CÁCERES	10	PALENCIA	34
CÁDIZ	11	PALMAS, LAS	35
CANTABRIA	39	PONTEVEDRA	36
CASTELLÓN	12	RIOJA, LA	26
CEUTA	51	SALAMANCA	37
CIUDAD REAL	13	S.C.TENERIFE	38
CÓRDOBA	14	SEGOVIA	40
CORUÑA, A	15	SEVILLA	41
CUENCA	16	SORIA	42
GIRONA	17	TARRAGONA	43
GRANADA	18	TERUEL	44
GUADALAJARA	19	TOLEDO	45
GIPUZKOA	20	VALENCIA	46
HUELVA	21	VALLADOLID	47
HUESCA	22	VIZCAYA	48
ILLES BALEARS	07	ZAMORA	49
JAÉN	23	ZARAGOZA	50

En el caso de domicilio en el extranjero, se consignará la clave 99.»

Dos. Se añade un nuevo campo «Cuentas en presunción de abandono», que ocupa la posición 479 del registro de tipo 2, registro de declarado, con el siguiente contenido:

«—Posiciones: 479.

Naturaleza: Alfabetico.

Descripción de los campos: Cuentas en presunción de abandono.

Se consignará una «X» para las cuentas en presunción de abandono, de acuerdo con lo dispuesto en la Ley 33/2003, de 3 de noviembre y su normativa de desarrollo, con problemas en la identificación de los declarados y las declaradas.»

Tres. Se añade un nuevo campo «Cuentas en presunción de abandono», que ocupa la posición 500 del registro de tipo 2, registro de autorizado, con el siguiente contenido:

«—Posiciones: 500.

Naturaleza: Alfabetico.

Descripción de los campos: Cuentas en presunción de abandono.

Eremu honetan «X» bat jarriko da, azaroaren 3ko 33/2003 Legean eta hura garatzeko araudian xedatutakoaren arabera, aitortuen identifikazioarekin arazoak egoteagatik ustez abandonatuta dauden kontuak identifikatzeko.»

Lau. Aitortuaren erregistroko -2. motako erregistroko 479-500 posizioak «Zuriuneak» 480-500 posizioak izatera pasatzen dira «Zuriuneak».

Azken xedapen bakarra. Indarrean jartzea eta aplikatzea.

Foru Agindu hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzen den egunean jarriko da indarrean, eta, aplikagarria izango da, lehen aldiz, 2019. urteari dagokion aitorpena aurkezteko.

Donostia, 2019ko abenduaren 20a.—Jabier Larrañaga Garmendia, Ogasun eta Finantza Departamentuko foru diputatua.
(8168)

Se consignará una «X» para las cuentas en presunción de abandono, de acuerdo con lo dispuesto en la Ley 33/2003, de 3 de noviembre y su normativa de desarrollo, con problemas en la identificación de los declarados y las declaradas.»

Cuatro. Las posiciones 479-500 «Blancos» del registro de tipo 2, registro de declarado, pasan a ocupar las posiciones 480-500 «Blancos».

Disposición final única. Entrada en vigor y aplicación.

La presente Orden Foral entrará en vigor el día de su publicación en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa, y será de aplicación, por primera vez, para la presentación de la declaración correspondiente al año 2019.

San Sebastián, a 20 de diciembre de 2019.—El diputado foral del Departamento de Hacienda y Finanzas, Jabier Larrañaga Garmendia.
(8168)